



# areatza

Martxoa 2018 *Marzo* 22 zk.

## lantzen

***Martxoaren 8ak  
mugarria ezarri du***

■ Peatonalizazioa

■ Aurrekontua

■ Obrak Jubilatuen Etxean eta Mudejar eraikinean

## Telefonoak



## Areatzako Udala

946 73 90 10

## Parketxea

946 73 92 79

## Gorbeialde Elkarte

946 31 55 25

Arratiako Udalen  
Mankomunitatea

946 31 17 17

## S.O.S Deiak

112

## Medikuaren kontsulta

946 00 74 63

## Galdakaoko Ospitalea

944 00 70 00

## Botika

946 73 93 22

## Autobusak

Bizkaibus 902 22 22 65

La Unión 944 27 11 11

## CEPSA

Larrialdiak (24 ordu)

902 10 02 24

Bezerearentzako arreta  
(24 ordu) 902 41 64 16

## Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa

944 87 31 87

## Iberdrola

944 15 14 11

Indarkeria matxistaren  
aurkako telefonoa

900 84 01 11

## Udal Sareak

944 87 31 87



## Guardiako botikak

## Martxoaren 26tik apirilaren 2ra

Zamalloa Asua, M<sup>a</sup> Arantza. Areatza.  
Askatasuna kalea, 15. Tel: 94 673 93 22

## Apirilaren 3tik 8ra

Traver Nicolau, Eduardo. Bedia.  
J. A. Agirreren enparantza, z/g. 94 631 39 50

## Apirilaren 9tik 15era

Badiola Uriarte, M<sup>a</sup> Nekane. Artea.  
Herriko plaza, 7. Tel: 94 631 73 11

## Apirilaren 16tik 22ra

Arrieta Bereciartua, Naiara. Lemoa.  
Atutxa Salburua, 1. Tel: 94 631 30 18

## Apirilaren 23tik 29ra

Rodriguez Martinez, M<sup>a</sup> Purificación. Igorre.  
Lehendakari Agirre, 27. Tel: 94 673 61 09

## Apirilaren 30etik maiatzaren 6ra

Traver Nicolau, Eduardo. Bedia.  
J. A. Agirreren enparantza, z/g. 94 631 39 50

## Maiatzaren 7tik 13ra

Badiola Uriarte, M<sup>a</sup> Nekane. Artea.  
Herriko plaza, 7. Tel: 94 631 73 11

## Maiatzaren 14tik 20ra

Rodriguez Martinez, M<sup>a</sup> Purificación.  
Igorre. Lehendakari Agirre, 27.  
Tel: 94 673 61 09

## Maiatzaren 21etik 27ra

Zamalloa Asua, M<sup>a</sup> Arantza. Areatza.  
Askatasuna kalea, 15. Tel: 94 673 93 22

## Maiatzaren 28tik ekainaren 3ra

Arrieta Bereciartua, Naiara. Lemoa.  
Atutxa Salburua, 1. Tel: 94 631 30 18

## Ekainaren 4tik 10era

Rodriguez Martinez, M<sup>a</sup> Purificación.  
Igorre. Lehendakari Agirre, 27.  
Tel: 94 673 61 09

## Urte osoan 22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles, Miren Nekane.  
Urbi, 15. Basauri. Tel: 94 449 44 26

## Autobus ordutegiak

## Bizkaibus

## Zeanuri-Lemoa-Galdakaoko ospitalea-Bilbo

Lanegunetan/Laborables:  
(lehenengoa/inicio) 05:00etan

(ordu erdiro/cada media hora) 05:15etik 06:45era

(orduro/cada hora) 06:45etik 21:45era

Larunbatetan/Sábados:  
(lehenengoa/inicio) 05:00etan  
(orduro/cada hora) 05:45etik 21:45era

Jaiegunetan/Festivos (orduro/cada hora) 07:45etik 21:45era

## Bilbo-Galdakaoko ospitalea-Zeanuri

Egunero/Diario (orduro/cada hora) 06:15etik 22:15era

## Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

\*(Ubidetik irteerak/Salidas desde Ubide)

Lanegunetan eta larunbatetan/Laborables y sábados

(bi orduro/cada dos horas) 06:45etik 20:45era

Jaiegunetan (bi orduro/cada dos horas) 08:45etik 20:45era

\*(Otxandiotik irteerak/Salidas desde Otxandio)

Lanegunetan eta larunbatetan/Laborables y sábados  
(orduro/cada hora) 06:55etik 20:55era

Jaiegunetan (bi orduro/cada dos horas) 08:55etik 20:55era

## Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Egunero/Diario 06:45etik 20:45era

\*Otxandiora/a Otxandio (orduro/cada hora)

\*Ubidera/a Ubide (orduro/cada dos horas)

## Zeanuri-Lemoa-Bilbo (autopistatik/por autopista)

Lanegunetan/Laborables 07:00etan eta orduro 08:15etik 21:15era

Larunbat eta jaiegunetan/Sábados y festivos (ez dabil/no circula)

## Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik/por autopista)

Lanegunetan/Laborables (orduro/cada hora) 07:00etatik 21:00etara

Larunbat eta jaiegunetan/Sábados y festivos (ez dabil/no circula)

JUBILATUEN ETXeko OBRAK  
AURRERA DOAZ

Areatzako Udalak Jubilatuen Etxean zenbait aldaketa eta hobekuntza egitea erabaki zuen iaz, eta hala, Jubilatuen Etxeko proiektu honekin lokalaren barne antolaketa berria lortuko da: elbarrituentzat egokitu-tako komunak, aisialdi eta atsedeen gela bat, eta terraza ere, kristalezko egitura bati esker, urte osorako erabilgarri egongo dira. Horrela, lokalak 110,41 metro karratu izango ditu, lehen baino 19,53 metro karratu gehiago, posta bulegoaren espazioa bereganatu egingo baitu. Obrak amaitu bitartean udalak beste espazio bat atondu du Jubilatuen Elkarteke kideek erabil dezaten.

Udalak lanak lehiaketara atera ostean, 5 enpresa aurkeztu ziren, eta horien artean ABI Eraikuntza kooperatiba elkarte txikia izan zen esleipenduna, 84.794,92 euroko eskaintzarekin. Proiektuak Eusko Jaur-laritzaren 36.312,79 euroko diru laguntza jaso du, kopuru osoaren %43koa.

## Posta bulegoa lekuz aldatu da

Orain arte posta bulegoa Jubilatuen Etxeari itsatsita zegoen, baina aurrerantzean Jubilatuen Etxearen parte izango denez, posta bulegoa lekuz aldatu da. Udaletxeko sarreratik bertatik eskainiko du arreta posta bulegoak, sarreran leiho bat izango baitu zerbitzuak.

AVANZAN LAS OBRAS DEL HOGAR DE  
LOS/AS JUBILADOS/AS

*Gracias a las labores que se están realizando en el Hogar de los/as Jubilados/as, el local contará próximamente con una nueva organización, donde resaltan los baños aptos para personas con minusvalías y una sala polivalente, y se dará utilidad a la terraza, instalando una estructura de cristal. Así, el hogar tendrá una superficie de 110,41 metros cuadrados, 19,53 más que antes, ya que se ha añadido el espacio de la oficina de correos.*

*ABI Eraikuntza resultó ser la adjudicataria del concurso público, con una oferta de 84.794,92 euros. El Gobierno Vasco ha subvencionado la obra con 36.312,79 euros, el 43% del total del coste.*

## La oficina de Correos ha sido trasladada

*Como resultado de la obra, la oficina de Correos se ha trasladado, y ahora tendrá acceso desde la entrada del ayuntamiento; dispondrá de una ventana en la misma entrada.*

MUDEJAR ETXeko  
LANEN LEHEN  
FASEA OSATU DA  
DAGOENeko

Aurreko alean aurreratu bezala, Areatzako Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiko Ondare Zerbitzuarekin elkarlanean, Errukine kalean kokatutako Mudejar Etxean zenbait mantentze-lan egin ditu. Hain zuzen ere, mantentze-lanen programazioko lehen fasea osatu da dagoeneko, eta fase honetan 3 metrotik behera dagoen fatxada desmuntatu eta barruko elementuak egokitu egin dira. Horretarako Baserrigintza enpresa kontratatu da eta aipatutako Aldundiko Ondare Zerbitzuko adituen aholkularitza jasotzen ari da Udala uneoro.

Fase hau amaitu da eta eta orotara 24.086,26 euroko kostua izan du.

Aurrerantzean bigarren faseari ekingo zaio, aurreikuspenen arabera aurten bertan. Bigarren fase horretan aipatutako Bizkaiko Foru Aldundiko Ondare Zerbitzuak txosten bat egingo du, eta bideratuko diren lanak txosten horren arabera-koak izango dira; hala, eraikina eta bere elementuak berreraikitzea izango da helburua.

FINALIZADA LA  
PRIMERA FASE DE  
LA OBRA DE LA CASA  
MUDÉJAR

*El Ayuntamiento de Areatza, en colaboración con el Servicio de Patrimonio de la Diputación Foral de Bizkaia, ha realizado varios trabajos de mantenimiento de la Casa Mudéjar situada en la calle Errukine. En concreto, se ha finalizado la primera fase de las tareas de mantenimiento, desmontando la parte baja de la fachada y adecuando sus elementos. Para ello se contrató la empresa Baserrigintza, bajo la supervisión del Servicio de Patrimonio de la Diputación.*

*La primera fase ha tenido un coste total de 24.086,26 euros.*

*La segunda fase se realizará según el contenido del informe del Servicio de Patrimonio de la Diputación, previsiblemente durante este año.*

areatza  
lantzen

Argitaratzailea: Areatzako Udala  
Lege Gordailua: BI-906-2016  
Diseinua IBEGRAFIK  
eta maketazioa: www.ibegrafik.eus

## PEATONALIZAZIOAREN LEHENENGO FASEA OSATU DA

Aurreko alean aurreratu bezala, Gabonetan udalak peatonalizazio plana indarrean sartu zuen, eta, harrezkero, plazako eta Alde Zaharreko zirkulazioa itxi egiten da eguerdiko 14:00etatik hurrengo eguneko 08:00ak arte aste barruan eta larunbat eguerditik aurrera. Sistema berri honek, hala ere, ez du eraginik anbulantzien edo suhiltzaileen ibilgailuen kasuan, eta, horrela, larrialdiren bat gertatuz gero laguntza zerbitzuen sarbidea bermatuta dago.

Hasierako fase honetan, Areatzako Udalak bi bide hezitzaile kontratatu ditu plan berriaren nondik norakoak kalean herritarrei zuzenean azaltzeko eta zalantzak argitzeko. Bi bide hezitzaile horiek, gainera, herrikoak bertakoak izan dira. Hasierako fase hau osatuta, langileen zerbitzua bukatutzat eman da. Hala, udala Ertzaintzarekin batzartu da berriki peatonalizazio sistema eta helburuak azaltzeko eta erakundeen arteko elkarlana handitzeko.

Horrez gain, aparkatzeko zenbait leku berri ere seinalizatu dira, herriko saltoki eta komertzioetan erosketak egitera etorri nahi duenak horretarako berariaz markatutako lekuak izan ditzan. Horrela, herritarrek zein kanpotik datozenek Areatzara erosketak egitera etortzen jarraitzea lortu nahi da.

Horrek esan nahi du seinalizatutako leku berri horiek komertzioetan erosketak egitera datozenentzat prestatu direla, eta, horrenbestez, ezin direla erabili autoa egunerokotasunez aparkatzeko. Leku horiek Ilargi kaleko kantoian, Gortazar jauregiaren aurrean, erreka ondoko paseo berrian eta Gurutzeta plazan kokatuta daude, guztira 9 plaza. Kontuan hartu behar da udalak komertzioen jarduerara bultzatu eta laguntzeko sortu dituela gunehauek.

### Deia herritarrei

Sistema berri honek herritarren konpromisoa behar du eta herritarren konpromisorik gabe nekez lortuko da ezarritako helburua. Guztion esku dago, beraz, Areatza herri iraunkorrago, biziago, erosoago eta osasungarriagoa izatea.

Horrez gain, plan honen testuinguruan udalak egindako egokitzapen eta moldaketa elementuetan zenbait eraso jasan dira eta kaleko hainbat elementu apurtu egin dituzte. Honen bitartez udalak, berriz ere, herritarrei dei egin nahi die herriko elementu publikoak eta kaleko altzariak patxadaz eta zuzen erabil ditzaten.

## SE HA CULMINADO LA PRIMERA FASE DE LA PEATONALIZACIÓN

*Como ya se adelantó en los anteriores ejemplares, en Navidad entró en vigor la primera fase del plan de peatonalización, y desde entonces se han aplicado restricciones en la circulación dentro del casco histórico.*

*En esta primera fase, el Ayuntamiento ha contratado a dos educadores/as viales con el objetivo de informar a la ciudadanía y aclarar todas las dudas. Las personas contratadas han sido, además, vecinos/as de la localidad, y una vez culminada la primera fase, se ha dado por finalizado el servicio prestado. El ayuntamiento se ha reunido recientemente con la Ertzaintza para explicar el sistema de peatonalización y los objetivos.*

*Además, se han señalizado varias plazas de aparcamiento, concretamente en el cantón de Ilargi kalea, delante del Palacio Gortazar, en el paseo nuevo y en la Plaza Gurutzeta, contabilizándose en total 9 plazas. De ese modo, se pretende impulsar que tanto los/as vecinos/as locales como los/as foráneos sigan efectuando sus compras en Areatza.*

### Llamamiento a la ciudadanía


*El sistema instaurado necesita del compromiso de la ciudadanía y sin ello será difícil lograr los objetivos propuestos. Está en manos de todos/as lograr un pueblo más sostenible, lleno de vida, cómodo y saludable. Por último, es necesario resaltar que varios elementos colocados durante la ejecución del plan han sufrido ataques y han resultado dañados. El ayuntamiento, una vez más, quiere hacer un llamamiento a sus vecinos/as para que hagan un uso correcto y respetuoso del mobiliario urbano.*

## SE HA REALIZADO UNA AUDITORÍA ENERGÉTICA DEL ALUMBRADO

*Durante los procesos de participación que se han llevado a cabo se ha puesto de manifiesto la preocupación de la ciudadanía por la iluminación del pueblo, y por ello el Ayuntamiento encargó una auditoría energética al ingeniero Luis Miguel Navarro, vocal del Comité Español de Iluminación. Con ello se busca también reducir el gasto en electricidad del alumbrado.*

*En la auditoría se analizaron, entre otros aspectos, los sistemas de regulación y encendido, la calificación energética y la situación de las luminarias. Las conclusiones del informe muestran que, en general, la iluminación pública de Areatza es correcta desde el punto de vista de eficiencia energética, pero que la sensación de poca iluminación de algunas zonas se debe al “efecto cebra”, es decir, a la sensación de no ver al pasar de una zona muy iluminada a una poco iluminada, porque nuestros ojos tardan en adaptarse.*

*Por lo tanto, a la hora de proyectar la iluminación pública no sólo se deben tener en cuenta criterios importantes como la eficiencia energética, sino también otros como la distancia entre las luminarias o su altura, ya que influyen en la manera en la que nos sentimos cómodos/as o no con la iluminación de las calles y siguiendo esas conclusiones se ha diseñado la iluminación del parque Pedro Antonio Añibarro, lo que se ha valorado muy positivamente por la ciudadanía.*



## AREATZAKO ARGITERIAREN AZTERKETA ENERGETIKOA EGIN DA

Herritarrek parte-hartze prozesuetan adierazitako kezkarri erantzunez, hau da, herriari gutxi argizatutako hainbat puntu daudela azalduz helarazitako mezuari erantzunez, Areatzako Udalak auditoria energetikoa egitea erabaki zuen iaz, alde batetik, aipatutakoa aztertzeke, eta bestetik, herriko argiei dagozkien elektrizitate gastuak murrizteke.

Luis Miguel Navarro ingeniaria eta Espainiako Argiteria Kontseiluko kidea arduratu da auditoria egiteaz, eta hainbat gai aztertu ditu, besteak beste, argi murriztaileak, pizteko sistemak, energia eraginkortasuna eta luminarien egoera. Auditoriaren helburu nagusia energia kontsumo txikiarekin, hau da, eraginkortasun energetiko handiarekin argiztapenik egokiena lortzea da. Horretarako lehen pausoa farola guztietan LED sistema jartzea izango litzake. Izan ere, momentu honetan farolen %33k bakarrik funtzionatzen du LED sistemarekin. Hala ere, LED sistema jartze hutsak ez du berez argiztapen egokirik bermatzen; izan ere, farolen arteko urruntasuna, luminarien norabidea, argiaren uniformetasuna eta farolen altuera ere ezinbesteko baldintzak dira argiztapen egokia lortzeko. Hala, azterketaren ondorioen artean nabarmendu behar da Areatza herriko argiteria egokia dela energia eraginkortasunaren ikuspuntutik, baina, nahiz eta eraginkortasun energetiko egokiko luminariak jarrita izan, gerta liteke kalea era desegokian argizatuta egotea, lehen aipatutako baldintzak direla eta. Hau da Areatzako kale askotan gertatzen dena, besteak beste, Askatasun kalean, Javier Uria kalean edota Iturrimaurren. Herritarrek guneha ilunak identifikatzea “zebra efektuari” dagokio, hau da, asko argizatuta dagoen guneha batetik argi gutxiago dagoen beste batera pasatzean iruditzen zaigu ez dugula ikusten, begiak denbora behar izaten duelako egoera berrira egokitzeko.

Horrela, da Pedro Antonio Añibarro parkea horrela argiztatu da, hau da, azterketako datuak kontuan hartuta eta Luis Miguel Navarroren laguntzarekin, eta herritarrek pozik agertu dira emaitzarekin.



## HAINBAT HOBEKUNTZA EGINGO DIRA HERRIAN 1.600.000 EUROKO AURREKONTUARI ESKER

1.600.000 euro pasatxoko aurrekontua izango du aurten Areatzako Udalak hainbat ekintza burutzeko, horrela onartu baitzen otsaileko udalbatzarrean, EH Bilduren aldeko eta EAJ-ren kontrako botoekin. Aurten, 100.000 euro inguru gehiago jasoko ditu udalak Bizkaiko Foru Aldundiaren Udalkutxatik, 919.939 euro guztira.

### Zertara bideratuko da dirua?

Udalaren antolakuntzarako 139.100 euro bideratuko dira, hain zuzen ere, administrari lanpostu berria betetzeko eta bulegoen berrantolaketa egiteko. Udaletxearen berrantolaketa horrekin udal bulegoak beheko solairura jaitsiko dira, Gaztelekua atonduko da eta liburutegia berriro irekiko da, besteak beste.

Horrez gain, Askatasuna kaleko galtzada-harria kentzeko 90.000 euroko partida bideratuko da, hala ere, hori gauzatzea diru laguntza baten menpe egongo da. Bidenabar, Alde Zaharra berpizten jarraitzeko 46.000 euroko diru partida bideratuko du udalak aurten (kopuru horretatik 20.000 euro Areatza 1338 SL-k ordainduko ditu). Besteak beste, etxeen egokitzapena bultzatu eta gazteen alokairuak lagunduko dira.

Aurten, argiterian ere hobekuntzak egitea aurreikusi du udalak; izan ere, 2017. urtean herriko argiei buruz egindako txosten eta ikuskaritzan ondorioztatutako aholkuei eta ondorioei kasu eginez, hainbat aldaketa egingo dira, alde batetik puntu ilunak argitzeko eta, beste aldetik, elektrizitate gastuak murrizteko helburuarekin. Horretarako 40.000 euroko kopurua bideratuko du udalak.

Bestalde, herritarren parte-hartzea bultzatu eta udalaren eta herritarren arteko komunikazioa lantzen jarraitzeko 24.300 euroko partida izango da aurten. Gainera, turismoari dagokion partidan, 14.000 euro egongo dira, besteak beste, Areatzan ibilbideak sortzeko, herriko argazki zaharrak batzeko eta udalerraren 680. urteurrena ospatzeko. Bizikidetzarako ekintzak sustatzeko ahalegin berezia egingo da aurten, eta horretarako 12.000 euro jarriko dira. Garapenaren arloan, enpresa mintegiko proiektua aurrera ateratzeko 8.500 euroko partida bideratuko da, bulegoetan egingo den inbertsiorako, mintegiko kudeaketarako, proiektu berrientzako diru laguntzetarako eta formaziorako.

Herria zaintzen jarraitzeko, hau da, alde batetik, auzo bideak konpontzeko eta mendi publikoetan larreak egiteko ere egongo da partida bat, eta bestetik, ondarea zaintzeko 25.000 euro egongo dira. Horrez gain, euskara ikasteko ikastaroen matrikulak %100 ordainduko dira aurten.

### Udalaz gaindiko erakundeak

Azkenik, udalaz gaindiko erakundeei dagokienez, aipatzekoa da udalak Arratiako Udalen Mankomunitateari urtero egiten dion ekarpena. Aurten, 59.493 euro bideratuko dira Mankomunitatera, eta horri esker, aurrera jarraituko dute, besteak beste, zabor-bilketek, gizarte arloko ekintzek eta berdintasunari dagozkien ekintzek.

### 10.000 eurotik gorako gastu nagusiak

Kontzeptua	Zenbatekoa
IGERILEKUNETAKO KUDEAKETA ZERBITZUA	43.000
AREATZAKO JAIK	42.000
ESKOLA ETA HAURRESKOLAREN GARBIKETA	31.401
UDALAK ESKAINTZEN DITUEN IKASTAROAK	26.000
KULTURA JARDUERAK	25.000
LUDOTEKA ETA GAZTELEKUA	22.700
UDAL ANTOLAKETA	21.780
KALE GARBIKETA	21.386
ADM. ERAIKINETAKO GARBIKETA LANAK	20.000
ALDE ZAHARREKO ETXEEN EGOKITZAPENA	20.000
KALE ETA HERRIKO ELEKTRIZITATEA	19.612
PARKEEN MANTENTZE LANAK ETA BIDE BAZTERRAK	16.764
MAKINERIA INSTALAZIOAK ETA LANABESAK (igogailuak, galdarak, garabiaren alokairuak)	15.110
IKERKETAK ETA LAN TEKNIKOAK HIRIGINTZAN	15.033
HIRIGINTZA ETA LAGUNTZA JURIDIKOAK	15.000
WEBGUNE BERRIA	14.300
ESKOLA ETA HAURRESKOLAREN ELEKTRIZITATE INDARRA	14.094
UR ZERBITZUKO LOKALAREN ALOKAIKUA (ASKATASUN 1)	13.475
ZUHAITZAK ETA PARKEAK	13.152
BIZIKIDETZA	12.000
ESKOLA ETA HAURRESKOLARAKO ERREGAIK	11.200
PARTEHARTZEA SUSTATZEKO BALIABIDEAK	10.000
AREATZA LANTZEN ALDIZKARIA ETA IRAGARKIAK	10.000
AREATZAKO BANDA	10.000

## EL PRESUPUESTO DE 1.600.000 EUROS PERMITIRÁ HACER MEJORAS EN AREATZA

Este año Areatza cuenta con un presupuesto de 1.600.000 euros, tal y como se aprobó en el pleno municipal de febrero con los votos a favor de EH Bildu y en contra del PNV. Este año el ayuntamiento recibirá 100.000 euros más del Udalkutxa, 919.939 euros en total.

### ¿A qué se destinará el presupuesto?

El presupuesto aprobado va a permitir realizar muchas mejoras. En lo que respecta a la organización del ayuntamiento, se han derivado 139.100 euros; así, las oficinas municipales se instalarán en la planta baja del ayuntamiento, se acondicionará el Gazteleku y se reabrirá la biblioteca.

Además, el ayuntamiento prevé retirar el adoquín de la calle Askatasuna, y ha destinado para ello una partida de 90.000 euros, aunque su realización estará sujeta a una subvención. En cuanto a las mejoras del Casco Viejo, cuentan con 46.000 euros (de los cuales 20.000 euros aportará la sociedad Areatza 1338 SL), y se repartirán ayudas para el alquiler entre las personas jóvenes. Siguiendo los consejos de la auditoría energética, se mejorarán las luminarias para acabar con los puntos oscuros y reducir los gastos (partida de 40.000 euros).

Por otro lado, se seguirá impulsando la participación ciudadana y la comunicación mediante una partida de 24.300 euros. Además, se destinarán 14.000 euros para crear rutas, recoger fotografías antiguas y organizar la celebración del 680 aniversario de la villa. También se hará especial hincapié en acciones para fomentar la convivencia con una aportación de 12.000 euros. En cuanto al área del desarrollo, se destinarán 8.500 euros al vivero de empresas para poder financiar inversiones en las oficinas, su gestión, subvenciones para los proyectos y la formación.


Como todos los años, se destinará una partida para el mantenimiento de los caminos vecinales y la creación de prados en los montes públicos. En cuanto al patrimonio cultural, habrá 25.000 euros para su cuidado, y se subvencionarán al 100% las matrículas para aprender euskera.

### Entidades supramunicipales

Por último, merece la pena mencionar la aportación que hace el ayuntamiento a la Mancomunidad de Municipios de Arratia. En el 2018 se destinarán 59.493 euros para la recogida de basuras y para la realización de acciones sociales y para la igualdad, entre otras.

### Gastos principales superiores a 10.000 euros

Concepto	Cantidad
SERVICIO GESTIÓN PISCINAS	43.000
AREATZAKO JAIK	42.000
LIMPIEZA ESCUELA Y HAURRESKOLA	31.401
CURSOS ORGANIZADOS POR EL AYUNTAMIENTO	26.000
ACTIVIDADES CULTURALES	25.000
LUDOTEKA Y GAZTELEKU	22.700
ORGANIZACIÓN MUNICIPAL	21.780
LIMPIEZA DE CALLES	21.386
LIMPIEZA DE EDIFICIOS ADMINISTRATIVOS	20.000
ACONDICIONAMIENTO DE EDIFICIOS EN EL CASCO HISTÓRICO	20.000
ELECTRICIDAD PÚBLICA	19.612
TAREAS DE MANTENIMIENTO PARQUES Y MÁRGENES DE VIALES	16.764
INSTALACIONES DE MAQUINARIA (ascensores, calderas, alquiler de grúas)	15.110
TAREAS TÉCNICAS Y ESTUDIOS EN URBANISMO	15.033
URBANISMO Y AYUDA JURÍDICA	15.000
NUEVA PÁGINA WEB	14.300
ELECTRICIDAD ESCUELA Y HAURRESKOLA	14.094
ALQUILER DE LOCAL DE SERVICIO DE AGUA (ASKATASUN 1)	13.475
ARBOLADO Y PARQUES	13.152
PROYECTO DE CONVIVENCIA	12.000
CALEFACCIÓN DE LA ESCUELA Y HAURRESKOLA	11.200
RECURSOS PARA PROMOCIONAR LA PARTICIPACIÓN	10.000
REVISTA AREATZA LANTZEN Y PUBLICIDAD	10.000
AREATZAKO BANDA	10.000



## AREATZA 1338 SL SOZIETATEAK 55.000 EURO JASO DITU UDALETIK

Areatza 1338 SL hirigintzako birgaitze lanak eta Alde Zaharrean zein herri osoan hirigintzako beste lan batzuk egiteko sortu zuen Areatzako Udalak 2002. urtean. Hala, entitatea SL edo sozietate mugatu bat izan arren, sozietate horren jabe bakarra Udala da, eta SL edo sozietate mugatua denez, ez dago udalak bete beharreko araubide berberen mende; alegia, beste arau batzuk bete behar ditu.

Alokairu sozialak, etxebizitzaren promozioak (Karpon eta Alde Zaharrean) eta Auzokar izan dira sozietatearen orain arteko ekintzarik garrantzitsuenak, eta horiek gauzatu ahal izateko dirua Udalaren ekarpenetatik, diru laguntza publikoetatik eta banketxeen maileguetatik jaso izan ditu.

Izan ere, Areatza 1338 sozietateak bi mailegu ditu banketxeekin une honetan, bere garaian eskatutakoak hainbat lan garatzeko. Hala, urte batzuetan, esaterako 2013an, Areatza 1338 SL sozietatearen zorra (1.501.534 euro) udalaren diru sarrerak

(1.363.232 euro) baino handiagoa izan zen. Ondoren, 2014tik hona, altuagoak izan dira diru sarrerak sozietatearen zorra baino.

Hala, aurten Areatzako Udalaren aurrekontutik 55.000 euroko ekarpena egingo zaio Areatza 1338 SL sozietateari, iaz baino 82.000 euro gutxiago eta 2016an baino 116.050 euro gutxiago.

Izan ere, sozietateak banketxeekin daukan zorra gutxituz doa, apurka-apurka. Udal taldea gobernuan sartu zenean, 2015ean, 1.312.727 eurokoa zen zorra, eta 2018an, berriz, 1.035.066 eurokoa da. Horrez gain, urte amaieran Areatzako Udalaren kontuetan “erremantea” edo gerakina izanez gero, udal gobernuko taldeak hortik ere kopuru bat Areatza 1338 SL sozietatera bideratzeko asmoa dauka, aurreko urteetan egin bezala. Izan ere, zorra murriztea lehentasunezko helburua da Areatzako Udalarentzat.

## 55.000 EUROS PARA AREATZA 1338 SL

Areatza 1338 SL fue creada en 2002 por el Ayuntamiento de Areatza para realizar labores de rehabilitación urbanística y otras obras de urbanismo tanto en el Casco Viejo como en el resto del pueblo. Aunque la entidad sea una sociedad limitada, el único dueño de esa sociedad es el ayuntamiento, y como se trata de una sociedad mercantil su ejercicio no está sujeto a las mismas normas que lo está el ayuntamiento.

Sus principales actividades han sido alquileres sociales, promociones de viviendas (en Karpo y Casco Viejo) y

Auzokar, y se ha financiado mediante aportaciones del ayuntamiento, ayudas públicas y créditos de entidades bancarias.

En estos momentos Areatza 1338 SL tiene dos préstamos bancarios que se solicitaron en su momento para realizar varias obras. Durante algunos años, por ejemplo en 2013, la deuda de Areatza 1338 SL (1.501.534 euros) ha sido superior que los ingresos del ayuntamiento. A partir de 2014, la deuda de la sociedad es inferior a los ingresos del ayuntamiento, gracias a las amortizaciones aceleradas que se han hecho estos años.

## GARBIKETA TRESNA ETA TEKNIKA BERRIAK HERRIAN

Berriki, udalak herriko kaleak hobeto eta modu eraginkorragoan garbitzeko tresneria berria erosi du, eta udal langileak dagoeneko tresna hori erabiltzen eta teknika berriak aplikatzen ari dira.

Izan ere, alde batetik, udalak moto-ponpatze makina bat erosi du; bestetik, udalak glifosatorik ez erabiltzeko konpromisoa hartu zuen, eta, horrenbestez, garbiketa teknika berriak aplikatzen ari dira langileak. Hala, ur beroarekin funtzionatzen duen makina bati esker, goroldioa eta itsatsitako zinkeria hobeto kentzen da. Langileak dagoeneko Bekokalen eta Zubizarran erabili dituzte, eta emaitzak oso positiboak izan dira.

## NUEVAS TÉCNICAS Y HERRAMIENTAS DE LIMPIEZA

*El personal operario municipal de Areatza trabaja ya aplicando la nueva herramienta de limpieza adquirida recientemente; se trata, concretamente de una motobomba. Además, se están aplicando también nuevas técnicas de limpieza respetuosas con el medio ambiente, ya que el Ayuntamiento se comprometió a no usar glifosato.*

*Las tareas se han realizado ya en Zubizarra y Bekokalea, y los resultados han sido muy satisfactorios.*



## ORDENANTZA FISKAL BATZUK ALDATUKO DIRA

Areatzako Udalak ordenantza fiskal batzuk aldatzeari ekingo dio. Hala, aldaketa horren barruan zehatz esateko, hiru ordenantza aldatuko dira: Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga (EIOZ), udalekuetako tasak eta igerilekuetako tasak. Horrez gain, herritarrek ekarpenak egiteko aukera izango dute, idatzi bati udaleko erregistroan sarrera emanda.

Gaur egun indarrean dagoen Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga 2013ko abendukoa da, eta harrezkero hainbat aldaketa egon dira, besteak beste, 50 urte baino gehiago dituzten eraikuntzek inspektzio teknikoa pasatu beharra. Horrek aipatutako zergak Areatzako bizilagunengan duen eragina aztertzea eskatzen du, ezinbestean. Aurreikusten diren irtenbideen artean inspektzioaren ondorioz egin beharreko obretarako zerga jaitea legoke.

Udalekuetako tasei dagokienez, garestitza jo izan dituzte herritarrek, batez ere, inguruko herrietakoekin alderatuz. Hala, udalak, iritzi horiek kontuan hartuta, aipatutako tasak errebisatu egingo ditu eta jaitea edo hobariak aplikatzea aztertuko du.

Azkenik, igerilekuetako tasak ere berriro egingo dira, ez baitituzte kontuan hartzen familia mota ezberdinak, ezta zerbitzu horrek udalarentzat suposatzen dituen gastuak ere. Beraz, gaur egungo tasak aztertu egingo dira, inguruko antzeko instalazioetako prezioak kontuan hartuz eta inguruko herrietan familia guztientzako berdintasunean oinarritutako tasak lortzeko emandako irtenbideak aztertuz.

## SE VAN A MODIFICAR VARIAS ORDENANZAS

*El Ayuntamiento de Areatza va a iniciar la elaboración de distintas ordenanzas fiscales, en concreto, se van a modificar tres: el Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras (ICIO), las tasas sobre colonias de verano y las tasas sobre las piscinas, ofreciendo también la posibilidad a la ciudadanía para aportar su opinión a través de un escrito con entrada en el registro municipal.*

*La normativa del ICIO es de 2013, y desde entonces ha habido cambios como la obligación de realizar las Inspecciones Técnicas de Edificios de más de 50 años de antigüedad, que hacen conveniente analizar cómo afecta este impuesto en la ciudadanía.*

*En cuanto a las tasas sobre las colonias de verano, la ciudadanía opina que son muy caras, por lo que se van a revisar y valorar la posibilidad de bajarlas o de establecer bonificaciones. Por último, las tasas actuales sobre las piscinas no tienen en cuenta los diferentes tipos de familias existentes, así como el gasto que supone el servicio, por lo que se deben revisar.*



## AURTENGO MARTXOAREN 8AK MUGARRIA EZARRI DU

Martxoaren 8an Emakumeen Nazioarteko Eguna omentzen da, eta aurten, berriz ere, hitzordu horretako ekintzak Arratia mailan koordinatu eta modu bateratuan argitaratu dira, herri guztiek elkarrekin eta gizarte mugimenduak eta erakundeak batuz. Hala, mundu mailan bezala Arratian ere aurreikuspen guztiak aise gainditu dira eta inoiz baino hitzordu jendetsuago, aldarrikatzaileago eta anitzagoa izan da.

Gure eskualdeari dagokionez, herri guztietan antolatuta dira ekintzak eta ekintza horiek, gainera, oso anitzak izan dira aurten: Lemoan, esaterako bertso saio musikatu antolatu zen Gaztetxean; Diman eta Areatzan, berriz, antzerkiak eskaini ziren eta Zea-nur-in, ostera, dokumental bat proiektatu zen; Artean erakusketa jarri zuten ikusgai eta Arantzazun eta Igorren, berriz, gai honi buruzko zenbait solasaldi eskaini ziren. Azkenik, Bedian mendi martxa bat egin zen martxoaren 4an.

Gure herriari dagokionez, bi jardura antolatu ziren; batetik, martxoaren 10ean Nomofobikak taldearen "Sarean kateatuak" antzezlan ikusteko aukera izan genuen, Areatzako I. Umorezko Antzerki Erakustaldiaren barruan, AKKBk eta Areatzako Udalak elkarrekin antolatutakoa. Antzezlanean hiru emakume dira protagonista, eta gaur egun teknologia berriei, telefono mugikorrei eta sare sozialei dagokienez bizi dugun egoera izan zuten hizpide.

Bestetik, Arratiako Emakumeen Jabe-kuntza Eskolarekin elkarlanean, Areatzan eskaintzeko tailer bat ere antolatu zen, hain zuzen ere martxoaren 9an eta 10ean; tailerraren izenburua "Maita-

sun erromantikoa vs. Maitasun Askea" da, eta Josebe Iturrioz filosofia irakasleak eta berdintasun teknikari ohiak irakatsi behar zuten. Ikastaro horretan maitasun erromantikoa mitoak aztertu eta maitasuna bera desmitifikatzea bezalako gaiak landu behar ziren, besteak beste. Hala ere, tamalez, hizlariaren arazo pertsonalak tarteko, tailerra bertan behera utzi behar izan zen, eta beste momentu batera atzeratu da. Data berria jakin bezain pronto horren berri emango da.

### Zergatik da Martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna?

Askok ospakizun eguna dela pentsatu arren, Emakumeen Nazioarteko Eguna martxoaren 8an omentzen da 1875. urteko egun horretan Amerikako Estatu Batuetan, hain zuzen ere, New Yorken, emakume ugari soldata baxuengatik manifestatzen ari zirela poliziak 120 emakume erail zituelako protesten kontra kargatzerakoan. Emakumeak oihalgintza enpresa bateko langileak ziren, eta lan berberetatik gizonak kobratzen zutenaren erdia baino gutxiago kobratzen zuten.

Hala, egunak maiz ospakizun kutsua hartu izan duen arren, jatorrian emakumeen aurkako indarkeria gertaera bat du oinarrian.

Ondoren Emakume Langileen Eguna izena jarri zitzaion, baina izen hori aldatu egin zen, hain zuzen ere, emakume guztiak garelako langileak, batzuek etxean edo zaintzen lan egin arren, hori ere lana delako.

### Greba feminista

Aurten, halaber, eguna omentzeko lehenengo aldiz greba feminista bat antolatu da 150 estatutan baino gehiagotan, talde feministek deituta. Greba honetan emakumeei kasuan kasuko lanpostua uzteko deia egiteaz gain, bestelako betebeharrak batzuk uzteko deia ere egin zitzaion, adibidez, zaintza lanak. Izan ere, gure familietan haurrak, gazteak zein jende nagusia zaintzeko lana emakumeek egiten dute gehienetan, baita etxea kudeatu eta eramatea ere. Karga hori guztia ez da ordaintzen eta, gainera, gure arteko emakume askok lan hori haien enplegu ordainduarekin uztartzen dute, eta, hortaz, lan bikoitza egiten dute horren truke ezer kobratu gabe.

Hala, greba horren deialdia gurean ere egin zen, eta Arratiako emakumeak zein gizon batzuk Igorren elkartu ziren martxoaren 8an, 12:00etan, Kultur Etxearen inguruan. Kontzentrazio zaratsua izan zen, eta bereziki jendetsua izan zen aurten, adin guztietako eta sektore guztietako emakumeak batu zirelako, baita Areatzako emakume ugari ere. Antolatzaileen aurreikuspenak aise gainditu ziren eta den-denek nabarmendu zuten kontzentrazioa ederra eta hunkigarria izan zela.

Horrez gain, Areatzako zein Arratiako emakume ugari Bilboko manifestazioan ere izan ziren, arratsaldean. Manifestazio hunkigarria izan zen eta antolatzaileek adierazi dutenez, aurreikuspenak aise gainditu dira agerraldi guztietan.

## Martxoaren 8a Areatzako Eskolan

Eskolan ere landu dute gai hau, eta, beste urte batzuetan bezala, aurten ere gure herriko haurrak kalera atera ziren herrian aurkitutako emakumei loreak banatzeko eta etxe atarrietan loreak jartzeko. Horrez gain, eskolako hesian amantalak eseki zituzten, greba eguneko deialdian aipatu bezala. Herriko hainbat balkoitan ere ikusi ahal izan genituen amantalak esekita.

### El 8 de Marzo en la escuela

Los/as alumnos/as de la escuela también trabajaron el tema, y, como en otros años, este año también han salido a la calle a repartir flores a las mujeres y a colocar flores en los portales. Además, colgaron delantales en la barandilla del colegio, tal y como se instó en la convocatoria de la huelga. También se pudieron ver delantales en varios balcones del pueblo.



## EL 8 DE MARZO HA SUPERADO TODAS LAS EXPECTATIVAS

El 8 de Marzo se conmemora el Día Internacional de la Mujer, y este año, una vez más, los actos organizados se han coordinado a nivel comarcal, entre todos los municipios, movimientos sociales e instituciones.

Así, al igual que en numerosos lugares, también en Arratia se han superado todas las previsiones y la cita ha sido más participativa, reivindicativa y plural que nunca. Se han organizado actos en todos los municipios de Arratia, y han sido actos de todo tipo, ya que se han podido presenciar tanto obras de teatro (Dima y Areatza), como un documental (Zeanuri) o varias charlas (Arantzazu e Igorre).

En Areatza se organizaron dos actos. Por un lado, el 10 de marzo, se pudo disfrutar de la obra de teatro "Sarean kateatuak" de la mano del grupo Nomofobikak, dentro de Areatzako I. Umorezko Antzerki Erakustaldia, organizado conjuntamente por AKKB y el Ayuntamiento. La obra está protagonizada por tres mujeres, y hablan sobre la situación creada por las nuevas tecnologías, teléfonos móviles y redes sociales. Por otro lado, en colaboración con la Arratiako Emakumeen Jabekuntza Eskola, se organizó un taller para los días 9 y 10 de marzo, bajo el título "Maitasun erromantikoa vs. Maitasun Askea", pero, desgraciadamente, el taller fue pospuesto por problemas per-

sonales de la conferenciante. Se informará de la nueva fecha una vez definida.

### Origen del 8 de Marzo

Aunque muchas veces se enfoque como una celebración, el día 8 de marzo se conmemora el Día Internacional de la Mujer porque ese día del año 1875 la policía asesinó a 120 mujeres mientras protestaban por sus bajos salarios en New York (Estados Unidos). Aquellas mujeres eran trabajadoras en una empresa textil, y cobraban menos de la mitad del sueldo que los hombres por el mismo trabajo. Es por ello que el 8 de marzo se conmemora aquella efeméride, y aunque primeramente se denominó Día de las Mujeres Trabajadoras, posteriormente su nombre se cambió, ya que se consideró que todas las mujeres son trabajadoras, incluidas aquellas que trabajan en las labores de hogar o de cuidado no remunerado.

### Huelga feminista

Este año, como novedad, se ha convocado por primera vez una huelga feminista en más de 150 países, haciendo, así, un llamamiento a todas las mujeres para que dejasen de trabajar tanto en sus puestos de trabajo como en otras áreas como, por ejemplo, las tareas de cuidado.

En muchos hogares, el cuidado de niños/as, jóvenes y personas mayores lo ejercen las mujeres, y muchas veces suelen compaginarlo con sus empleos, realizando un doble trabajo y no recibiendo un sueldo a cambio. Es por ello que en la convocatoria también se instó a las mujeres para que dejaran de realizar dichas labores.

En Arratia se convocó una concentración en Igorre, donde se reunieron más participantes que en los años anteriores, superándose todas las previsiones. Además, por la tarde, muchas mujeres de Areatza y Arratia acudieron, asimismo, a la manifestación de Bilbao, que resultó ser, según las partes organizadoras, más plural y concurrida que nunca.





## PENTSIODUNEN KONTZENTRAZIOAK AREATZAN

Estatu mailako deialdiekin bat etorritz, Areatzan ere pentsiodunek hainbat kontzentrazio egin dituzte azken asteetan udaletxearen aurrean pentsio duinak eskatzeko.

Hala, ekintza horiekin pentsio duinak jasotzeko eskubidea aldarrikatu nahi dute, eta aurrerantzean ere hala egiten jarraituko dutela adierazi dute.

## CONCENTRACIONES DE LOS/AS PENSIONISTAS EN AREATZA

*Durante las últimas semanas se han realizado varias concentraciones de los/as pensionistas de Areatza frente al ayuntamiento, para pedir unas pensiones dignas, secundando así la convocatoria realizada a este colectivo.*

## ALBOAN IZAN DA AUKERATUTAKO GGKEa

Aurreko urteetan bezala, 2017. urteko aurrekontuan ere Areatzako Udalak diru partida bat izan du garapenerako lankidetzaren proiektuetara bideratzeko. Herritarrek bozkatzeko epea bukatu ondoren, aukeratutako Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakunde (GGKE) Alboan izan da, Guatemalan kokatutako proiektu batekin; proiektu horri esker, genero indarkeriaren biktimak izan diren Q'eqchi' emakume indigenen jabeakentz lagunduko da.

Aurten hiru proiektu aurkeztu dira, geografikoki Palestina, Guatemala eta Nikaraguan kokatutakoak, Bakerako Lankidetzaren Batzarra, Alboan eta AMS Mundo Solidarioa GGKEk aurkeztutakoak, hurrenez hurren. Hiru proiektuetan udalak lantzen duen ardatzetako bat jorratu da: genero ikuspegia. Hiru proposamenak webgunean aurkeztu dira eta bertan ikusgai izan dira herritarrek bozkatzeko epeak iraun duen artean. Hogei boto ingururekin, Alboan izan da erakunderik bozkatuena, eta aipatutako 3.000 euroko ekarpena eskuratu du.

## ALBOAN HA RESULTADO SER LA ONGD ELEGIDA ESTE AÑO

*Al igual que en años anteriores, el Ayuntamiento de Areatza dispone de una partida económica en el presupuesto del año 2017 para destinarla a un proyecto de cooperación al desarrollo. Tras haber finalizado el plazo para votar por parte de la ciudadanía, la Organización No Gubernamental para el Desarrollo (ONGD) elegida ha resultado ser Alboan, con un proyecto localizado en Guatemala que ayudará en el empoderamiento de las mujeres indígenas Q'eqchi', víctimas de violencia de género.*

*Este año se han presentado tres proyectos localizados geográficamente en Palestina, Guatemala y Nicaragua, proyectos presentados por las ONGD Asamblea de Cooperación por la Paz, Alboan y AMS Mundo Solidarioa, respectivamente. Los tres proyectos responden a uno de los ejes de actuación del gobierno municipal: la perspectiva de género. Las tres propuestas se han presentado en la web durante el plazo que se ha abierto para que la ciudadanía vote por su opción más deseada. Con una veintena de votos, Alboan se ha erigido como la ganadora de la aportación mencionada, que cuenta con un monto de 3.000 euros.*

## ENPRESA MINTEGIA EKIPATU EGIN DA

Aurreko aleetan aurreratu bezala, Askatasun kaleko 34. zenbakiko behealdean kokatuta dagoen enpresa mintegia ekipatzen ibili da Areatzako Udalak; izan ere, mintegiaren helburua enpresak sortu eta hasieran martxan jartzeko espazioa lagatzea da, eta horretarako bulegoak ekipatu dira.

Hala, altzariak eta gutxieneko zerbitzuak ezarri dira, alegia, elektrizitatea, argia, ura edota Internetarako konexioa. Orain, bulegoak prestatu ondoren, mintegiaren erabilerarako araudia lantzen ari da udala, oinarriak eta deialdia definitzen hain zuzen ere.

## SE HA EQUIPADO EL VIVERO DE EMPRESAS

*El Ayuntamiento de Areatza ha equipado el Vivero de Empresas situado en el bajo del número 34 de la calle Askatasuna. El objetivo del vivero es la creación de empresas y ofrecer un espacio para el comienzo de su andadura.*

*El local se ha dotado de muebles y de servicios mínimos, es decir, de electricidad, luz, agua y conexión a Internet. Una vez preparadas las oficinas, el ayuntamiento está definiendo la normativa para su uso, que se plasmará en las bases de la convocatoria que está preparando.*

## ARRATIAKO ENPLEGU BULEGOA BERRIZ ERE ZABALIK

Areatzako Udalaren eta Arratiako Udalen Mankomunitatearen lankidetzari esker, Askatasun kalean kokatutako Arratiako Enplegu Bulegoa zabalik dago berriro. Bertan, enplegurako informazio zerbitzua eskaintzen da, lan bila dabiltzanei banakako arreta eskaintzen zaie eta taldekako tailerrak ere egiten dira, enplegua bilatzeko teknika ezberdinen berri emateko.

Bulegoa astearte eta ostegunetan irekitzen da, 09:00etatik 13:30era eta 15:30etik 17:30era, baita asteazkenetan ere, 09:00etatik 14:30era. Informazio gehiago nahi duenak 671 057 702 telefono zenbakira dei dezake, bertan egoten den orientatzailearekin hitz egiteko.

## SE HA REABIERTO LA OFICINA DE EMPLEO DE ARRATIA

*Gracias a la colaboración entre el Ayuntamiento de Areatza y la Mancomunidad de Municipios de Arratia, se ha reabierto la Oficina de Empleo de Arratia, donde se ofrece información personalizada para encontrar empleo y también se organizan talleres en grupo para trabajar distintas técnicas.*

*La oficina situada en la calle Askatasuna nº 34 cuenta con personal orientador, y se abre los martes y jueves de 9:00 a 13:30 y de 15:30 a 17:30, y también los miércoles de 09:00 a 14:30. Para más información es posible llamar al 671 057 702.*



## GOIKOKALEKO ETXEBIZITZETAN SUKALDEAK JARRI DIRA

Goikokale 14-16 eraikinean hutsik dauden hiru etxebizitzak alokairuan jartzeko asmoa du udalak eta, horretarako etxebizitzak ekipatzeari ekin dio. Hala, sukaldeak jarri ondoren, ordenantza bat aterako da alokairu soziala bultzatzeko, batez ere gazteei zuzenduta.

## LAS VIVIENDAS DE GOIKOKALE SE HAN EQUIPADO

*El Ayuntamiento ha optado por equipar las viviendas vacías de Goikokale 14-16 para su posterior alquiler, por lo que, tras finalizar con la instalación de las cocinas, próximamente se publicará una ordenanza para regular el alquiler social dirigido, principalmente, a los/as jóvenes.*

## AREATZAKO TOPONIMIA ETA HERRI ONDAREA BATZEKO LANA AURKEZTU DA

Azken hileetan Areatzako toponimia eta herri ondarea batzeko lana egin du Areatzako Udalak, Labayru Fundazioarekin batera; hala, zenbait astetan landa lana egin da, eta horretarako Labayruko teknikariak Areatzako zenbait herritarrekin elkartu dira haien lekukotzak jaso eta bideoz grabatzeko; testigantza guztiak bildu ondoren, orotara 30 orduko ikus-entzunezko lana osatu da.

Grabazioetan parte hartu dutenak Franziska Etxebarria eta Ignazio Aranburu, Begoña Bereziartua, Maribel Gorostizagoiza, Mikel Urriz, Julio Ortuzar, Luis Etxebarria, Santi Canales, Jose Luis Madariaga, Victor Orue eta Jose Luis Orue izan dira. Grabazioetan toponimo edo leku izenez gain bestelako gaiak ere landu dituzte hiztunek, besteak beste, garai hartako bizimodua eta dagoeneko erabiltzen ez diren hitzak edota ohiturak.

Hala, abenduaren 28an egin zen lanaren aurkezpena, udaletxean, eta bertan bildu ziren udaleko ordezkariak, Labayruko teknikari zein arduradunak eta baita grabazioetan parte hartu duten hainbat kide ere. Akaitze Kamiruaga izan da lanaren arduraduna, eta aurkezpenean Labayruko zuzendari Adolfo Arejita ere bertan izan zen. Aipatutako 30 orduko lanaren laburpen gisa, Labayruko teknikariek 30 minutuko bideo labur bat prestatu zuten, eta bideoa ikusi ondoren Adolfo Arejitak hizketaldi mamitsua eskaini zuen. Ondoren, udalaren izenean, Asier García Artetxe alkateak oparitxo bana eman zien bideoan parte hartu zuten herritarrei, eta lekuko batzuek ezin izan zuten bertan egon, lekuko senideek jaso zuten udalaren oroigarria. Bukatzeko, luntx txiki bat izan zuten bertaratutakoek.

Bideoa (bertsio laburtua) udalak zein Labayru Fundazioak Youtube plataforman dauzkaten atarrietan ikus daiteke, eta dokumentu idatzia laster jarriko da eskuragarri udal webgunean.

## SE HA PRESENTADO EL PROYECTO DE TOPONIMIA

*Durante los últimos meses, la Fundación Labayru, por encargo del Ayuntamiento, ha elaborado un proyecto para recoger los nombres de lugares o topónimos del municipio de Areatza, reuniéndose para ello con varios/as vecinos/as de la villa para recoger sus testimonios en sendas grabaciones en video. Además de los topónimos, las personas participantes han hablado también sobre otras cuestiones, como la forma de vida de su niñez, y así se ha podido completar un proyecto audiovisual de 30 horas de duración.*

*Las personas participantes en las grabaciones han sido Franziska Etxebarria y Ignazio Aranburu, Begoña Bereziartua, Maribel Gorostizagoiza, Mikel Urriz, Julio Ortuzar, Luis Etxebarria, Santi Canales, Jose Luis Madariaga, Victor Orue y Jose Luis Orue.*

*El proyecto se presentó ante la ciudadanía el 28 de diciembre, en el ayuntamiento de Areatza, donde se reunieron representantes del ayuntamiento, varias de las personas participantes en las grabaciones y también representantes de la Fundación Labayru, concretamente la persona encargada del proyecto, Akaitze Kamiruaga, y el director de la Fundación Labayru, Adolfo Arejita, quien realizó una breve intervención en el acto. Previamente se ofreció un video de cerca de 30 minutos, como soporte abreviado del mencionado proyecto de 30 horas. Para finalizar, el alcalde Asier García Artetxe, en nombre del ayuntamiento, entregó un pequeño obsequio a las personas participantes en el video o a sus familiares, ya que en algunos casos fue imposible que los/as participantes acudieran a la presentación. El acto acabó con la degustación de un pequeño lunch.*

*La versión abreviada del video puede encontrarse en la plataforma Youtube, dentro del canal tanto de la Fundación Labayru como del Ayuntamiento de Areatza. El documento escrito se publicará próximamente en la web municipal.*

## BONBOLONTENA TALDEA GARAILE IV. ERREFRAU POTEOAN

Aurten ere Areatzan euskara erabilera sustatzeko, bertsoak kaleratzeko eta euskararen esaera zaharrak ezagutzeko, Areatzako Euskara Batzordeak IV. Errefrau Poteoa antolatu zuen otsailaren 2an, eta oraingoan Fredi Paia eta Arkaitz Estiballes bertsolariak izan ziren ekimena gidatu zutenak. Aurten, gainera, trikitilariak kalejira girotu zuten tabernaz taberna ibiltzerakoan.

Hiru pertsonako taldeetan hartu behar zen parte, eta bertsolariak abestutako bertsoak parte-hartzaileei alde zuzenetik emandako zerrenda bateko zein esaera zaharri egokitzen zaien asmatu behar zen. Hala, Gaztetxean jokatutako finalean Bonbolontena taldea suertatu zen garaile, eta IMI taldea, berriz, txapeldunorde. Lehen postuan geratutakoek Areatzako Bainuetxeak emandako zirkuitua eta bazkaria jaso zuten sari gisa, eta bigarren postukoek, berriz, zirkuitua.

## EL GRUPO BONBOLONTENA FUE EL CAMPEÓN DEL IV. ERREFRAU POTEOA

*Un año más, con objetivo de fomentar el uso del euskera, garantizar la presencia del bertsolarismo y dar a conocer los refranes en euskera, la Euskara Batzordea de Areatza organizó el IV. Errefrau Poteoa el día 2 de febrero. Fredi Paia y Arkaitz Estiballes fueron los encargados de guiar la actividad, y este año la iniciativa contó, además, con una kalejira de trikitilaris.*

*Los/as participantes, organizados/as en grupos de tres personas, debían adivinar a qué refrán de la lista que disponían hacían referencia los bertsos de Paia y Estiballes. La final se celebró en el Gaztetxe, y lo ganó el grupo Bonbolontena, consiguiendo un circuito y comida en el Balneario, mientras que el grupo IMI quedó clasificado en segundo lugar, logrando así, un circuito termal.*



## EUSKARA SUSTATZEKO HAINBAT EKINTZA EGINGO DIRA AURTEN ERE

Areatzako Euskara Batzordeak hainbat ekintza egingo ditu 2018an euskara sustatzeko. Horretarako, udalaren Euskara Plana hartuko da oinarritzat eta UEMAk eskaintzen dituen zerbitzuak baliatuko dira.

Otsailean IV. Errefrau Poteoa egin zen, eta martxoan film laburren emanaldia antolatu da. Apirilean, haur eta gurasoei zuzendutako tailer bat egingo da. Tailerra UEMAko bi teknikariek eskainiko dute, eta horri esker, gurasoek beraien haurren hizkuntza erreallitate zein den jakin ahalko dute. Maiatzeko motibazio tailerra izango da uda aurretik egingo den azken ekintza.

Laster, azaroaren 23tik abenduaren 3ra gauzatuko den Euskaraldia prestatzen hasiko da Euskara Batzordea. Euskaltzaleak aktibatu, hizkuntza ohiturak aldatu eta euskararen erabilera areagotzeko ekimena da, eta Euskal Herriko hainbat herritan ipiniko da martxan.

Azkenik, UEMAren eskutik, urte guztian hainbat ekintzei emango zaie jarraipena, hala nola, jaioberrientzako gutun eta autorako pegatinekin, etorri berrientzako harrera triptikoen bidez eta udal barrura begirako euskara planaren lanketarekin.

## SE FOMENTARÁ EL EUSKERA MEDIANTE DIVERSAS ACTIVIDADES

*La Euskara Batzordea de Areatza promoverá el euskera mediante diversas actividades durante el año 2018. Para ello, se basará en el Plan de Euskera del ayuntamiento, y contará con los servicios que ofrece UEMA.*

*En febrero se celebró IV. Errefrau Poteoa, y en marzo se ha organizado una proyección de cortometrajes. En abril y mayo se llevarán a cabo sendos talleres.*

*Próximamente la Euskara Batzordea empezará a preparar el Euskaraldia que se celebrará entre el 23 de noviembre y el 3 de diciembre. Euskaraldia se pondrá en marcha en numerosos pueblos de Euskal Herria, con la pretensión de activar a los/as euskaltzales, cambiar los hábitos lingüísticos y promover el uso del euskera.*

*Además, de la mano de UEMA, durante todo el año, se seguirá repartiendo cartas y pegatinas para los/as recién nacidos/as y trípticos de bienvenida para los/as recién llegados/as. También se seguirá trabajando el Plan de Euskera de cara interna en el consistorio.*







## ARRATIOKO KORUAK EZ DU HUTSIK EGIN ETA AURTEN ERE AREATZA BISITATU DU SANTA AGEDA BEZPERAN

Oraingoan ere Arratiako Koruak ez du hutsik egin eta Areatzan bukatu zuen Santa Ageda bezperako eguna, Bizkaiko hainbat herritan barrena abesten egun osoa igaro ondoren.

Aurten 21:00ak inguruan iritsi ziren gurera, beste urte batzuetan baino goizago; izan ere, Santa Ageda bezpera igandea izan zenez, saltoki, banketxe eta erakundeak itxita egon ziren eta, horrez gain, aurten ibilbidea ere aldatu zuen koruak, eta beste urte batzuetan arratsalde bisitatzeko dituzten herriak aurten goizean bisitatu dituzte. Hala, egun osorako antolatutako programazioa azkarrago garatu zuten beste urte batzuekin alderatuta.

Areatzara iritsitakoan, euriak tarte bat eman zuen unea baliatu zuten azken doinuak abesteko, plazan; ondoren salda beroa eta okela hartzeko aukera eskaini zen udaletxeko arkupean.

Egun berean, arratsaldean, areatarrek herrian zehar Santa Agedako koplak abesteko aukera izan zuten, Guraso Elkartearen eskutik.

## UN AÑO MÁS EL CORO DE ARRATIA HA VISITADO AREATZA EN VÍSPERA DE SANTA AGEDA

Como todos los años, después de recorrer varios pueblos de Bizkaia, el Coro de Arratia visitó Areatza en víspera de Santa Ageda. Este año, el coro llegó a Areatza sobre las 21:00, antes que en otras ediciones, ya que la víspera de Santa Ageda resultó ser domingo, y los comercios, entidades bancarias e instituciones se encontraban cerrados. Además, el coro visitó por la mañana municipios que suele visitar por la tarde, por lo que la programación se desarrolló antes que en otros años.

Una vez en Areatza, el conjunto aprovechó una pequeña tragua de lluvia para cantar en la plaza, y posteriormente pudieron recobrar fuerzas degustando caldo y carne en la parte inferior del ayuntamiento.

Previamente, los/as vecinos/as de Areatza se animaron también a cantar las melodías tradicionales de Santa Ageda por el pueblo, de la mano de la AMPA o Guraso Elkartea.

## AURTEN ERE BISITA EGIN DIGUTE

Ez diote urteroko hitzorduari huts egin eta oraingoan ere Areatzan bisitan izan ditugu Olentzero eta Mari Domingi, lehenengo eta behin udaletxeko balkoitik herri-tarrak agurtzen, eta ondoren Gortazar Jauregian, haur zein helduei harrera egiten. Iritsi aurretik, beti bezala, kalejira egin zen herritik zehar hain hitzordu garrantzitsua ospatzeko.

Horrez gain, Errege Egunaren bezperan Errege Magoak ere etorri ziren gurera, eta hauei ere harrera lekua pres-tatu zitzaaien Gortazar Jauregian.

## NO HAN FALTADO A LA CITA

*Esta vez tampoco se han olvidado de nosotros/as, y en un día tan señalado, Olentzero y Mari Domingi se acercaron hasta Areatza para visitarnos, saludando primero desde el balcón del ayuntamiento, y ofreciendo después una recepción en el Palacio Gortazar.*

*Además, durante la víspera del Día de Reyes también pudimos saludar a los Reyes Magos de Oriente.*



**areatza**  
lantzen



Areatzako Udala



@areatzako\_udala